



ITSASOKO UDALA

(GIPUZKOA)

Herritar agurgarriok,
Jakinarazpen honen bidez, alarma-egoeraren aldi honekin zerikusia duten hainbat gairen berri eman nahi dizuegu, Batzar Nagusia egitea ezinezkoa baitzaigu:

1.-Alarma egoeran Udal Batzordeak hartutako erabakiak:

- Ostatua itxita dagoen bitartean, errenta ez kobratzea eta argindar faktura osoa Udalak bere gain hartzea
- Ostatuan eta Mandubiko bentan itxialdi epeko zabor tasarik ez kobratzea
- Ibilgailuen zergen kobrantza atzeratzea (irailean kobratuko da)

*Bai Ostatua eta Mandubiko Benta ere alarma egoeraren bigarren fasean irekiko dira, Mandubiko Benta maiatzaren 25etik aurrera eta Itsasoko Ostatua, ekainaren 2tik aurrera. Jaurlaritzak maiatzaren 18an eguneratutako irizpideen arabera, elkarte gastronomiko edo txokoek itxita jarraitu beharko dute momentuz.

2.-Gizarte Langilea

Herriko adinduei astero deitu die egoera eta sortu litezkeen beharrak gertutik jarraitzeko, eta konfinamendu egoerarako aholkuak emateko. Ondorengo egunetan beharrak aztertu eta herritarren artean maskarillak banatuko dira.

3.-2020ko Fondu Foroaren jaitsiera

Apirilaren 2an Goierri eta Tolosaldeko Alkateekin Aldundiko arduradunek egindako bideo-bileran aurreratu bezala, Covid19-ak eragindako krisi ekonomikoagatik %20eko jaitsiera izango da, eta Udaleko aurrekontuak egokitu egin beharko dira egoera berrira.

4.-Udaletxeko ganbarako proiektua

2020ko otsailaren 26ko Udal Osoko Bilkuran onartu zen " HERRITARREN ZERBITZUETARAKO ARETO BALIOANITZAREN GARAPENA-2ª FASEA" proiektuko obrak onartzea eta lizitazioa abian jartzea, eta iragarki bidez argitaratu zen kontratatzailearen profilean eta Itsasoko Udalaren webgunean.

Martxoaren 14ean COVID-19ak eragindako alarma-egoeratik lizitazioak etenda geratu ziren, maiatzaren 5etik aurrera berriro martxan jartzea ahalbidetu den arte, beti ere lizitazio elektronikoa bidez.

Maiatzaren 15ean berrabiarazi dugu tramitazioa, eta ekainaren 4a arteko epea izango dute enpresa interesatuek beraien eskaintza egiteko. Dena den, esan behar da orain arte ere enpresek ikusgai izan dutela proiektuaren inguruko dokumentazioa informazio profilean, eta interesa agertu dutela zazpi enpresek. Eraikina ikusten ere izan dira.

Obraren iraupena sei hilabetekoa izango da gehienez, eta hasteko data aukeratzen den enpresarekin adostuko da. Obrak irauten duen bitartean Udal Bulegoa eliza atariko lokalean egongo da

5.- Landa bideak egokitzeko diru-laguntza programa

Coronavirus-ak eragindako krisi ekonomikoa dela eta, Foru Aldundiak bertan behera utzi du aurtengo dirulaguntza deialdia (30.000 € inguruko laguntza izan da azken urteetan). Aurtengo deialdira bide hauen konponketa ginen aurkeztekoak: Ariztizabal-Kamiño, Atinbarrena, Mendeungo bidean Mandubiko bidegurutzera bitartekoa, eta Errebuelta-Eztala bidean izandako luiziaren konponketa. Azpiegitura Batzordean aztertuko da hauetatik zer egin litekeen, 2020 aurrekontuaren prebisioren arabera.

6.- Ormaiztegi-Alegi-Ezkio bidegorriaren inguruko eskarea Aldundira

Maiatzaren 7an, Bidegorri Sarearen ardura duen Rafaela Romerori idatzi bat bidali zaio Ormaiztegi, Itsaso, Gabiri eta Ezkioko alkateek sinatuta. Idatzi honetan eskatzen da bidegorriaren lotura gauzatzea Ormaiztegi-Alegi-Ezkio artean.

7.- Smart village programa

Europatik datorren programa bat da, herri txikiei zuzendua eta Espainiako estatuan herri txiki bat aukeratuko da. Herria ezagutaraztea eta Europako beste herri txiki batzuekin harremanak lortzea da helburua.

Siadecok egindako txostena oinarri hartuta aurkeztu da dokumentazioa, maiatzaren 4ean (Herrian ditugun aktiboak eta etorkizunerako proiektuak nabarmenduz)

GARRANTZITSUAK DIREN BOST AKTIBO	AKTIBOekin LOTUTAKO BOST PROIEKTU
<input type="checkbox"/> Nekazaritza eta ekologikoan lana egiten duten ekoizleen kolektiboa	Denda, produktuak eraldatzeko gunea, ...
<input type="checkbox"/> Ingurumenaren inguruko hausnarketa	Lur sailen erosketa, energiaren jasangarritasuna (eguzki plakak Udaletxeko teilatuan) , bidegorria,...
<input type="checkbox"/> Konektibitatea (banda zabala)	Lokal balioanitzia
<input type="checkbox"/> Herritarren partehartzea	Etxebizitza beharren azterketa (Itsason eta Alegian)
<input type="checkbox"/> Giza-harremanak	Co-working, ekintzailtza, ...

Jaso gure agurrik beroena,
Itsason, 2020ko maiatzaren 19an

UDAL BATZORDEA

